

Urnietan dantzan ipiniko dute asteburu honetan, gazte jaietan

Ostiralean hasi eta igandera bitarte hitzorduz beteriko asteburua izango da Urnietan.

Urnietan dantzan ipiniko dute asteburu honetan. Inoiz baino gehiago, **Egapek** antolatzen duen **“Urnietan Dantzan”** eguna hamargarren edizioa iritsi baita. Euren eskutik iritsiko da jaien hasiera, txupinazioa botako baitute ostiral arratsaldean. Euskal dantzak garrantzia berezia izango du aurtengo Gazte jaietan. Ez da, ordea, jaietako pizgarri bakarra izango. **Muxugoxo** elkarteak ostiralean aurkezpena egingo du Saroben, arratsaldeko 18:00etan hasita. Aurkezpen ekitaldiaren ondoren, *“Emaidazu muxugoxo bat”* bertso saioa antola-



Urnietan dantzan egitasmoaren hamargarren edizioa ospatuko da aurten.

tu dute Xamoa edota Alaia Martin bertsolarien parte hartzearekin.

MARTXA EGOKITUA

Pausoka elkarteak, bestalde, larunbat arratsalderako **Zanpatuz** eta **Korrikalaris a tope** elkar-

kin elkarlanean lehen martxa egokitua antolatu du. Belaze eta mendietan oztopoak dituzten kideei erraztasunak ipini nahi dizkiete. Hirurehun partaidetik gora espero dituzte. Larunbat arratsaldean, bestalde, Kataluniatik etorritako Fal-

FESTARAKO GONBITEA

“Festa egiteko nork bere grina zertarako diximula, ikusirikan gazteen festa laixter helduko zaigula. Urnietan girorik ez dagola ta askok egiten du burla, jakin bezate haien omenez festa egingo degula. Erakusteko urnietarrok nortasuna badegula!”

Jon Iturbe

cons dantzariak saio ikusgarria eskainiko dute. Iganderako, berriz, **Txanbolinen** emanaldia, Gazte dantza-soka, erraldoi eta buruhandiak, erromeria eta azken traka.

Eta tartean asteburu osoan zehar **Poxta Zahar** taldeak antolatutako ekitaldi sorta zabala.

[URNIETA, 4-5. ORRIALDEAK]

Ekitaldi ederra urteurrena ospatzeko



Aurreko igandean 75. urteurreneko ospakizun nagusiak egin zituzten Ontza elkarte-

[ANDOAIN, 8-9. ORRIALDEAK]

Areto futbol txapelketa, buruz burukoak

Maiatzak 29, Igandea.

Allurralde kiroldegia:

- 09:15. B Taldea: Hogar Extremeño Andoain/ Bar Egur Urnietan.
- 10:15 A Taldea: Keler/ Bar Txalaka .
- 11:15 B Taldea: Academia G.F/ Ekaitz.
- 12:15 A Taldea: Pinturas Aure Bar Maiton/ Centro Extremeño.
- Itzulerako partidak: Ekainak 5.

Gazte festetan parte hartzeko deia

Jaietako protagonista nagusienak gazteak dira, horietako batzuk jaien antolaketan burubelarri murgildu direnak.

Malen Ezeiza, Olaia Ruiz edota Juankar Solisen kasua da hori. Belaunaldi berriak festarako gogoz datoz, eta garran-

tzitsuen dena, baita lanerako gogoz ere. Afari kulturala bezalako ekimen berritzaileak prestatzen aritu dira, festazaleak jaietan modu dibertigarrian murgil daitezten. Gazte elkartez eta jaiiez hitz egiteko bildu ditu Aiurri astekariak. Ostiral gauean moztortuta ibiliko dira, beste hainbat koadrilako kideekin batera. Moztorroa eta gastronomia uztartu baitituzte afari kulturalan.



Olaia Ruiz Guiral, Juankar Solis eta Malen Ezeiza Zapirain gazteak.

GONBIDAPENA

Sarreraren prezioa gonbidapen gabe: 3€ (12 urte arte dohain).

Produktu ekologikoen, bioeraikuntzaren, energia berriztagarrien eta kontsumo arduratsuaren azoka

Ekainaren 3tik 5era

EKO esperientzia bizi ezazu!

bioterra.ficoba.org

- 3 pabiloi tematiko
- Osasun eta ongizate jasagarria
- Hitzaldiak, tailerrak eta denontzako aktibitateak
- Show Cooking
- Bioterraza, elikagai ekologikoekin
- Zozketak
- Haurrentzako aktibitateak!

gontzidapen hiru moztu eta azokaren sarrerari aurkeztu.

P dohainik

Ficobara, zator trenean!
(Irun-Ficoba geltokia)

euskotren

ANTOLATZAILEA

FICOB A
IRUN - GIPUZKOA
www.ficoba.org

ERREDAKZIOAN JASOA



165.000.000

Eguzki

ANDOAIN

Gaur (maiatzak 21, larunbata) Txirrinka Andoaindik pasa da eta kopuru hori izan da aldarrikapenaren ardatz: 165.000.000 bai, 165.000.000 euro.

Horixe da AHTa eraikitzea kostako dena, Andoaingo udalerriaren zatiari dagokionean. Beno, benetan kopuru hori baino handiagoa izango da, AHTaren zati askotan aurrekontua baino diru gehiago gastatzen ari direlako; Andoainen ere horrela da, egun lanak geldirik baitaude aurrekontuaren handitze baten zain.

Eguzkikook, Txirrinkaren Andoaingo erreleboaz arduratu garen neurrian, herriko eragile ezberdinei galdera bat jarri diegu mahai gainean: zer egingo zenuke zuk (edo zure elkarte/erakundeak) Andoainen AHTa eraikitzeko gastatzen ari garen diruarekin (gogoratu 165.000.000 euro) edo haren zati batekin?

Galderari denek ez diote era berdinenean erantzun. Batzuk zuzenki AHTan dirua gastatzeari alternatiba bat eman diote, beste batzuk berriz oso erantzun interesgarriak jaso ditugu.

Esaterako:

- **Andoaingo Kaleratzeak Stop**-ek zera proposatzen du: Andoaingo zatia eraikitzen gastatuko den diruarekin Euskadi osoan Larrialdietarako Laguntzak duen aurrekontua 8 aldiz bete ahalko litzateke. Energia pobreziaaren arazoa konponduko litzateke eta bazterketa arriskuan dauden familiak ez lukete inongo energia mozketarik jasan beharko. Gainera Andoainez gain eskualde osoan etxebizitza sozialen beharrak asetzeko ere iritsiko litzateke. Inbertsioak bai, baina gizarte eskubideetan murrizketarik gabe.
- **Andoaingo Ernaik** berriz, gazteei lana eta soldata duinak bermatzeko erabiliko luke dirua, baita etxebizitza eskubidea herritar guztiei eta bereziki gazteei bermatzeko ere, horretarako tresna nagusia alokairu soziala izanik.
- **Gaztetxeak** ere bat egin du ekimenarekin eta gazte naiz herritarren beharrak asetuko dituen ikastarotan (nork bere burua ezagutu eta kudeatzeko baliagarriak izan daitezkeenak), gertuko eta formatu txikiko kultur ekitaldietan inbertituko luke diru horren zati bat.

165.000.000 euro. Horixe da AHTaren trenbide eraikitzea kostako dena, Andoaingo udalerriaren zatiari dagokionean

nak), gertuko eta formatu txikiko kultur ekitaldietan inbertituko luke diru horren zati bat.

- **Ipar Haizea** plataformak nahiago izan du bere mezua Zubietako errauskailuarekin lotu. 1.200 milioitik gorako kostua izango lukeen egitasmoa zentzugabeko egitasmoen zerrenda sartzan dute. Zentzugabe bai herritarren eta bereziki andoaindarron osasuna arriskuan jartzen delako, ingurumenari kalte handia eragiten diolako, dirutza eta lehengaiak xahutzea suposatzen duelako eta bilketa bereiztua eta konpostaiaren oinarritutako plangintza batek emaitza askoz hobeak eman go litzukeelako, errauskailua kostako denaren %15arekin.

- **Eguzkik** berriz zera proposatu du: trenbideak bultzatu behar dira bai, baina benetan erabiltzen diren trenbideak. Hor dugu Irun-Brinkola ibilbidea, zeina egunero 15.000 bidaiari baina gehiagok erabiltzen duten, duela 125 urte baino gehiagotik oinarritzeko aldatuta hobekuntzarik izan ez duena. Trenbide sarea eguneratu, geltoki eta geralekuak eta tren bagoiak egokitu, erabateko irisgarritasuna bermatzeko Euskotrenen sarean kasu gehienetan gertatzen den bezala. Baita azken honetan irisgarritasuna %100ean bermatu eta desdoblamendua egin (Donostia-Irun ibilbidean esaterako).

Ikus daitekeen, gizarte eragileetan ez da ideiarik, proposamenik eta lan egiteko gogorik falta, ideia eta egitasmo horiek gauzatzeko dirua behar da. Eta dirua egon badago baina AHTa, errauskailua eta beste zenbait zentzugabeko egitasmotan xahutu nahi dute gizarte-ko beharrak eta gizartea bera bateratzeko edo kohesionatzeko balioko duten egitasmoetan inbertitu beharrean.

Horregatik Ama Lurraren defentsan, "Lurra zaindu, eredu soziala eraldatu" lelopean eta Eguzkiren erreleboari dagokionean, Andoaingo zatian gutxienez xahutuko diren 165.000.000 horien inguruko aldarrikapenak aintzat hartuta pasa da Txirrinka.

ERREDAKZIOAN JASOTAKOARI ERANTZUNA

Aurreko astean hedabide honetan argitaratu zen gutunari ("Alkate andreari", Eugenio Ariztimuño Amas, 2016ko maiatzaren 16an, Aiurri astekariaren 482. zenbakia) erantzuna:

ARIZTIMUÑO JAUNARI

Ana Carrere Zabala

ANDOAINGO ALKATEA

Lur-azpiko edukiontzien zigilatze, erretiratze eta ordezkatzearen aurrean, hainbat argipen egin nahi ditut ohar honen bidez.

Udalera iritsi ginenetik gure ardura izan da hainbat gairen inguruko azterketa eta kudeaketa egitea, beti ere, Udalaren gestioa ahalik eta optimoena izan zedin. Azterketa horien artean egon da hondakinen sistema berrikus-tea. Lan mardula izaten ari da, hondakinen bilketa sisteman nahasmen handia baitzegoen Udalera heldu ginenen.

- 2014tik Tolosaldeko Mankomunitateari ordaintzeko modua aldatu egin da. Aldaketa esanguratsua da, gainera: Herri bakoitzak bere bilketa sistemaren kostua beregain hartu behar du. Andoainen, gaur egun, bi bilketa sistema ditugu: Lur-azaleko edukiontziak eta lur-azpikoak. Sistema bakarrera pasatuz gero, urteko 300.000 euro aurreztuko ditugu. Nola? Kamioi bakarra pasako litzateke, eta bilketa sistemarako Amasa-Villabonako kamioi bera konpartituko genuke.

Bestalde, kontutan eduki behar da laster Andoainen 5.

edukiontzia ezarriko dela. Bilketa horretarako beste kamioi bat behar da. Horren kostua urteko 200.000 euro ingurukoa izango da.

Beraz, orain arteko sistema bikoitzarekin jarraituz gero (lur-azalekoak eta lur-azpikoak), 5. edukiontzia mar-txan hasten denean urteko gastua 500.000 eurotara igo-ko litzateke.

Hartutako neurriekin, ordea, zaborren bilketa bere osotasunean hartuta merketu egingo da. Zehazki esanda, aurrerantzean frakzio guztien bilketa (errefusa, papera, plastikoa, kristala eta organikoak) urteko 60.000 eurotan merketuko da.

- Bilketa denbora murrizten da. Frakzio bakoitzeko kamioi bakarra egongo denez (eta ez bi), sortzen dituzten arazoak (soinua, auto-ilarak...) murriztu egingo dira. Bestalde, aipatu behar da lur-gaineko edukiontzien bilketa arinagoa dela eta denbora gutxiago ematen dela bilketan (Mankomunitatearen txosten teknikoak).
- Urbanizazioaren kosteari dagokionez, lur-azpiko edukiontzien zigilatze-lanen kostua Mankomunitateak hartzen du beregain, baita lur-gaineko edukiontziak ezartzea ere. Beste lanen kostea Udalak beregain hartzen du. Lan guztiak amaitzean koste definitibo argitaratu emango dugu (beti egin dugun bezala). Edozein kasutan, Zerbitzuetako mantentze-entzako partidatik ordainduko dira lan hauek eta


urtean aurrezten dena ikusita, merezi duen inbertsioa dela uste dugu.

- Lur-azpiko edukiontzi batzuen kokapena ez zen batere egokia; bilketan arazo handiak ematen zituen, kamioiek maniobra arriskutsuak egitea behartuta zeuden (Algodonerako Emakumeen plaza, Elizondo plaza, Extremadura kalea...). Gainera, 5. edukiontzia (epe laburrean ezarriko dena) lur-azalekoa dela kontuan hartuz, arazoa ematen zuen bi sistemak leku berean bateratzeko.
- Erabakia bozketara jarri ez bada ere, marko ezberdinetan jarri izan da eztabaidagai (Hondakinen Mahaia, Zerbitzuetako batzordea...). Datu guztiak mahai-gainean eta gardentasun osoz jorratu den gaia izan da. Prozedura eta zenbakiak aztertuta, justifikatuta dagoen erabakia da.
- Auzoz auzoko bileretan azaldu genuen gai hau, eta askotan gertatzen den bezala, aldeko eta kontrako jarrerak agertu ziren. Gure aldetik, orain arte bezala, herritarren partaidetzarekin eta gardentasun osoz, Udal jarduna ahalik eta optimoena izan dadin erabaki egokioenak direnak hartzen jarraituko dugu.

Nolanahi ere, udaletxeko atea irekita daudela jakinaz nahi diegu andoaindar guztiei, honen eta bestelako gairen inguruko informazioa edota ekarpena egin nahi badute.

WWW.AIURRI.EUS

**Iritzia,
Postontzia,
Komunitatea
Aiurri, eskualdeko nortasun hitzak**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Pailazoen emanaldia Egape ikastolako jolastoki estalia

Pailazoezin baserrian



Jendetza bildu zen Urnietan, bostehun lagun, Egape ikastolako jolastoki estalian.

Azken urteetan egin bezala, muntai berri bakoitza aurteztara Urnietara hurbildu dira. Aurten, ordea, ezustekoarekin. Izan ere, Porrotx pailazoa gaxorik zen eta azken egunetako saioak bertan behera utzi behar izan ditu. Bere lekua ondo baino hobeto bete zuten Pirritx, Marimotots, Ilargi eta gainerako artistek. “Amalur” ikuskizunak beste behin ere herriko eta eskualdeko haur eta guraso askoren arreta piztu zuen, 500 lagunetik gora hurbildu baitziren.

İnistorak esker ona adierazi nahi die Urnietako Udaleri eskainitako babesagatik, Egape ikastolari laguntzagatik eta



Pirritx eta Marimotots, Pupu eta Lorerekin batera.

baita egun horretan bertan lanean aritu ziren bolondresei ere. Baita sarrerak saldu dituzten saltokiei ere.

Ezin ahaztu ere Andoaingo Udala, ikusleen hainbat eserleku Udalak utzitakoak izan baitziren.

GuraSOS elkarteak eztabaida zientifikoa antolatu zuen

Eztabaida gizartera eramatea eskatu dute

Erraustegiak osasunean izan ditzakeen ondorioak eman zituzten larunbat arratsaldean, Orona-Ideo gunean. Fernando Palacios CSICEko zientzialariak eta GEIS/OITEko medikuek eskaini zituzten azalpen horiek. GuraSOS taldeak antolatutako zabalkunde zientifikorako eta elkarrizketa sozialerako jardunaldiaren barruan kokatu ziren hitzaldiak eta mahai-inguruak: “GuraSOSek erraustegiaren eztabaida gizarteari bueltatu behar zaiola adierazi du, seme alaben osasuna delako jokoan dagoena. Ekitaldira bertaratuko ehunka osasuneko eta hezkuntzako profesionalek, familiak eta gurasoek informazioa jasotzeko, profesionalen iritzia ezagutzeko eta euren artean parteka-



tzeko eta eztabaidatzeko aukera izan dute. Mapa batean Donostian egin nahi den erraustegiak 30 km.ko eragin-eremua duela ikusten da. Eusko Jaurlaritzaren erraustegiak ingurunean duen eraginari buruzko adie-

razpenean jasotzen den kutsaduraren sakabanatze-atmosferikoaren azterketan jasotzen den bezala. Denera, 201 ikas-tetxe eta 69.119 haur eta nerabe kokatzen dira Donostiako erraustegiaren eragin-eremu horren barruan”.

“Jan eta izan” liburuxka



Egitasmoan parte hartu duten hainbat ikasle.

Salesiar ikastetxean proiektu eta erronken arabera irakaskuntza txertatzen ari dira, eta ostegun honetan arratsaldeko 17:00etan ikastetxean bertan aurkeztuko duten “Jan eta izan” liburuxka horren adibide garbia da. Elikadurari buruzko 30 orrialdeko lana da eta ikasleek eurek idatzi, maketatu eta inprimatu dute: DBH 1eko ikasleek Natur Zientziak, euskara, gaztelera, ingelera eta plastika arloetan edukia sortu dute, Lanbide Heziketako Diseinu Grafiko-

koek maketatu eta Inpresio Grafikokoek inprimatu. Beraz, ziklo eta adin ezberdinetako ikasleen arteko lanaren ondorio da: “Jatea eta elikatzea ez direlako gauza bera, eta gizartean jatearen eta ez elikatzearen aldeko joera hartzen ari garela kontziente”, garaian garaiko produktuen gida ekoitzi dute.

Datu praktikoez gain, errezetak txertatu dituzte. Liburua hiru hizkuntzatan dago: Euskara, gaztelera eta ingelesa.

Funky erakustaldia Saroben



Talde ezberdinak dantzan aritu ziren taula gainean.

Funkyko ikasle gazteek ikas-turte amaierako saioa eskaini zuten, aurreko larunbatean.

Igandean funky dantzaz gozatzeko aukera izango da San Juan plazan, 18:30ean hasita.



Dantzariak txalo zaparrada jaso zuten, ekitaldiaren amaieran.

Odol emaileak Urnietan

Odo emaileek hitzordu berria dute maiatzaren 31n, ohi be-

zala 18:30etik 20:30era antbulatorio zaharrean.

GAZTE FESTAK URNIETA 2016

Festarako deia



Olaia Ruiz Guiral, Juankar Solis eta Malen Ezeiza Zapiain Poxta Zahar gazte elkarteko kideak.

Gazte festen hasieran, gazteak izanik, gogo biziz izango zarete. Antolaketan sartuta, are gehiago ezta?

Juankar Solis. Halaxe da, azken denbora honetan egun hauek iritsi ahal izateko lan asko egin dugulako.

Malen Ezeiza Zapiain. Poxta Zahar biziberritu da, eta sartu den jende asko gogoz dago. Batzuk joan dira, baina sartu garenak indartsu sartu gara. Gogotsu gaude.

Hiruzpalau urte atzera, Gazte festak zer ziren zuentzat?

Olaia Ruiz Guiral. Barrakatan ibili,... txosnak zeharka ikusten genituen.

Juankar Solis. Ni orduantxe hasi nintzen Poxta Zaharren murgiltzen. Denbora horretan garapen bat ikusi dut. Geroz eta gazte gehiago hurbiltzen ari dira elkartera. Eta, bestalde, jaietara geroz eta gehiago inguruko herrietakoak hurbiltzen ari dira ere. Ikusten ari naiz, gainera, antolatzen ditugun ekitaldietan geroz eta hobe delako herriarren erantzuna. Uste dut azkenean lortu dugula urnietarrek Urnieta-ko jaietan parte hartzea.

Zehazki, antolatu dituzuen ekitaldietatik zein nabarmenduko zenukete?

Malen Ezeiza Zapiain. Afari kulturala ekimen berria da, eta dagoeneko 18 koadri-
lek izena eman dute. Asteartean zozketa egin zen, eta horren arabera koadrila ba-
koitzak herrialde bateko afari tipikoa prestatu beharko du. Afari hori prestatze-
az gain, hitzordura herrialde hartako jantziekin agertu beharko du. Egitasmo berria da, eta polita izango dela dirudi.

Olaia Ruiz Guiral. Epaimahai batek, gainera, afari onenari eta moztorro onenari sarria nori eman erabakiko du.

Afari kulturala, happy flower poteoa... Zer dela eta moztorrotzeko joera hori?

Olaia Ruiz Guiral. Moztorrotzean beste giro bat sortzen da, jai giroko aproposagoa.

Malen Ezeiza Zapiain. Jaiari alaitasun piska bat emateko formula egokia da.

Afari kultural horretan zein herrialde ikusiko ditugu irudikatuta?

Malen Ezeiza Zapiain. India, Kuba, Mexiko, Txina, Euskal Herria,...

Herri bazkarian menu beganoa eskainiko duzue. Herriarren eskaera izan al da?

Olaia Ruiz Guiral. Berez, ez. Aurten lehen aldiz eskainiko dugu.

Malen Ezeiza Zapiain. Herri bazkarian menu bakarra eskaintzean nolabait muga bat jartzen ari zara, esaterako, beganoak direnei.

Juankar, lan asko egin duzuela aipatu duzu. Noiz hasi zineten aurtengo jaiak antolatzen?

Juankar Solis. Lauzpabost hilabete dira bilera bat deitu genuela. Gure bilerak irekiak dira, eta gazte jaiak antolatzen hasiteko konpromisoa hartu genuen. Afari kulturalak eman digu lan gehiena.

Adin guztietakoak ongi-etorriak al dira?

Olaia Ruiz Guiral. Afarian, esaterako, adin ezberdinetako taldeak elkartuko gara.

Malen Ezeiza Zapiain. Oso positiboa da hori. Inauterietako bazkarian ere adin guztietako jendea elkartu zen. Gazteak gara, noski, eta festa gogoko dugu. Baina geroz eta herrikide gehiago biltzen bagara, askoz hobe.

Jaietako ordutegia hizpide izan duzue.

Malen Ezeiza Zapiain. Musikak goizaldeko 04:00ak arte luzatzea eskatu genuen eta Udaletik 02:00ak arteko baimena gurela erantzun ziguten.

Juankar Solis. Jai Batzordera jo genuen, orduan, gure eskaerari eutsi nahi geniola adieraztera. Han ziren gainerako elkarteren babesak jaso genuen. Gerora, Udalaren emaila jaso genuen 03:00ak arteko baimena gurela adierazten zuena. Denok ulertzen dugu bizilagunen arteko elkarbizitza errespetatu behar dugula, baina jaiak herrian urtean bitan edo hirutan izaten dira. Poxta Zahar lan handia egiten ari da herriko jaien alde, eta nire ikuspegitik Udalaren aldetik babes gehiago eduki beharko genukeela iruditzen zait.

Parte hartzera deituz, “ederki pasako dugu” esanez agurtu ziren hiru gazteak.

Hitzordu ugari



Erraldoi eta buruhandiak. Bosko anitz txaranga, dantza emanaldia,... Gazte jaien hasieran.

Maiatzak 27, ostirala

19:00-20:00 Herriko buruhandi eta erraldoien kalejira Plazido Muxika plazatik San Juan plazara Bosko Anitz txarangarekin.

20:00 Jaietako hasiera emateko txupinazoa Egapekoen eskutik, udaletxean. Ondoren, Egape dantza taldeko dantzarien emanaldia.

20:15-21:00 Bosko Anitz txarangaren kalejira San Juan plazatik abiatuta.



Argazki rallyko irabazleekin erakusketa ekainaren 13tik 24ra. Sari banaketa ekainaren 15ean da.

Maiatzak 28, larunbata

09:30-10:00 Urnietako XXIII. Argazki Digital Rallyan izena emateko aukera izango da Lekaion. Adin guztietakoek parte har dezakete. Argazki bilduma onenentzat 200 eta 100 euroko bi sari. Argazki onenentzat 100 eta 50 euroko bi sari. Urnietarren bilduma onenentzat 100 eta 50 euroko bi sari. 14 urte azpiko parte hartzaile guztiek sari bana jasoko dute.

11:30 Hamaiketako parte hartzaile guztientzat.



Haitzama.

Maiatzak 29, igandea

17:30 Erraldoi eta buruhandien kalejiraren hasiera, San Juan plazatik Plazido Muxika plazara.

18:30 Gazte funky taldeen erakustaldia.

19:00 Haitzama taldearen erromeria plazan. Romería en la plaza

21:00 Jaietako amaierako txupinazoa eta azken traka.

GAZTE FESTAK URNIETA 2016

Pausokaren ibilbide neurtua

Dagoeneko Pausoka Gipuzkoa osoko eremua hartzen duen elkarte da, gaitasun ezberdinak dituzten 80 umeren prozesu fisikoan eta kognitiboan sakontzeko sortu dena. Tratamendu integrala eskaintzen diete gaur egun, Hernanin duten egoitza nagusian. Are gehiago, dagoeneko elkarte haur horien familiei ere laguntza ematen hasi da. Elkarte, beraz, handituz eta osatuz doa.

Gazte festetan lehen martxa egokitua egin dute, Zanpatuz eta Korrikalaris a tope elkarrekin batera antolatu dutena. Astearte goizean aurkezpen ekitaldia egin zuten Lekaion eta adierazi zuten, hirurehunik gora partaide espero dituzte.

Larunbatean, arratsaldeko 16:00tan Etxeberri plazatik abiatuko da eta bost kilometrotan zehar herrigune ondoko mendialdean ibiliko dira. Izen-ematea arratsaldean bertan egin ahal izango da, plazan bertan. Ekimen solidarioa behar bereziak dituzten haurren aldeko ekimenak finantzatzeko erabiliko da. Pausokako kideek Udalaren eta Caixaren laguntza eskertu zuten. "Ibilbide erraza da, baina mendia zapaldu nahi dugu. Familia normalek egiten duten hori



egin nahi dugu eta horretarako Zanpatuz eta Korrikalaris a tope elkarrekin laguntza eskertu nahi dugu, edozein oztoporen aurrean laguntza eskainiko baitigute".

Ibilbidea: Plaza Etxeberri, Presentacion de Maria, trenbide gaineko zubia, Iturbe, Kanposantuko aldapa, Hernaniko institutua, Moko, Vegasa, Idiazabal.

Ibilbidea amaituta merienda eskainiko diete parte hartzaile guztiei. Eta, jarraian, Gazte festetako gainerako hitzorduetan murgiltzeko aukera izango da.

GAZTE FESTAK URNIETA 2016



Maiatzaren 27tik 29ra.

Ostirala, maiatzak 27

17:00
Gazteentzako jolas parkea eta Gaztelekuak antolatutako txokolatada Plazido Muxika plazan.

17:15
Jokoak/gymkana San Joan plazatik abiatuta herrian zehar Poxta Zaharrek antolatuta.

18:00
Muxugoxoren aurkezpena eta bertso saioaren azalpena, hala nola, sarreran jarriko den materialaren nondik-norakoak. Sarrera 3 euro.

19:00
Bertso-saio musikatua "Emaidazu muxu goxo bat": Xamoa, Alaia Martin, Egoitz Zelaia eta Maialen Akizu. Gaijartzaile: Haritz Casabal.

19:00-20:00
Herriko buruhandi eta erraldoien kalejira Plazido Muxika plazatik San Joan plazara Bosko Anitz txarangarekin.

20:00
Jaiei hasiera emateko txupinazoa, udaletxean. Ondoren, Egape dantza taldeko dantzarien emanaldia.

20:15-21:00
Bosko Anitz txarangaren kalejira San Joan plazatik abiatuta.

20:15-21:00
Picnic-afari kulturala Poxta Zaharrek antolatuta Egape ikastolan.

23:00-03:00
Kontzertua: Autobus Magikoa eta DJ Bull Zubitxo plazan (edo Egape ikastolan) Poxta Zaharrek antolatuta.

Larunbata, maiatzak 28

9:30-10:00
Urnietako XXIII. Argazki Digital Rallyaren izen ematea Lekaio kultur etxean.

10:00
Diana, Txanbolin txistulari bandarekin.

10:00
Haurrentzako dardo txapelketa Dardoka elkarrekin antolatuta bere egoitzan: Isidro Setien 2, behe.

10:00-13:00
Puzgarriak eta jokoak txikienentzat Egape ikastolako jolaslekuan.

"X Urnietan Dantzan"

Egape dantza taldeak antolatuta

11:00
Dantzarien topagunea Egape ikastolan; jarraian dantza saioak herriko plaza eta kaleetan zehar.

12:00
Dantzari txikien saio berezia San Joan Plazan.

13:00
Emanaldi berezia X.urteurrena ospatzeko dantzari guztien parte hartzearekin Plazido Muxika plazan.

*Eguraldi txarrarekin emanaldiak kiroldegian izango dira.

10 urte URNIETAN DANTZAN erakusketa
Lekaio kultur etxean:
maiatzaren 20tik 29ra.
asteleheneetik ostiralera 17:30-19:30
larunbata + igandea 11:00-13:00

12:00
Happy Flower poteoa lorez apainduta San Joan plaztik aterata Poxta Zaharrek antolatuta.

14:00-16:30
Herri bazkaria Idiazabal kalean (edo Egape ikastolan), Poxta Zaharrek antolatuta.

17:00 -19:00
Eletrotxufa txaranga Idiazabal kalean zehar Poxta Zaharrek antolatuta.

16:30
Zozketa bidezko bikote arteko helduen dardo txapelketa Dardoka elkarrekin antolatuta bere egoitzan: Isidro Setien 2, behe.

17:00-20:00
Artisautza merkatua eta haurrentzako tailerrak Zubitxo plazan Belaxen elkarrekin antolatuta.

17:30-18:30
"Ongi etorri fin del mundo" kale antzezkiuna Trapu Zaharra taldearen eskutik Zubitxo plazan.

16:00
PAUSOKA MARTXA EGOKITUA. Izen ematea eta irteera Etxeberri Plazatik 17:00etan.

18:15
Helmuga Idiazabal kalean (edo Egape ikastolan, eguraldiaren arabera). Jarraian sari banaketa, musika eta merienda Porrotxekin.

18:30
Kaledantza ekimena & Vilafrankako Falcons taldea. San Joan plazan hasiera emango zaio dantza herriko saioari, Vilafranca del Penedés-eko Falcons talde gonbidatuaren saioak partekatuz. Jarraian, Idiazabal kalean zehar zabalduko dira dantza herrikoak eta Falcons taldearen saioak.

23:00-03:00
Kontzertuak Zubitxo plazan (edo Egape ikastolan) Poxta Zaharrek antolatuta: Kalera, Txorroskilo, Eskaleak eta Kezka.

Igandea, maiatzak 29

10:00
Diana, Urnietako Txanbolin txistulari bandarekin.

12:00
Txanbolinek eskainitako kontzertu-dantza emanaldia.

12:30
Gazte dantza-soka herrikoia, San Joan Plazan, 14-16 bitarteko dantza zaleen partehartzaileekin, Egape DT-k antolatuta.

17:30
Herriko erraldoi eta buruhandien kalejira San Joan plazatik Plazido Muxika plazara.

18:30
Sarobeko Gazte funky taldeen erakustaldia.

19:00
Haitzama taldearen erromeria, San Joan plazan.

21:00
Jaiei amaiera emateko txupinazoa eta azken traka. Haurrentzako feriak probalekuan.

URNIETAKO XXIII.
ARGAZKI DIGITAL RALLYA
Maiatzak 28



OINARRIAK:
www.urnieta.eus

"GABON TXIRRITA" ANTZEZLANEAN IZANGO DA BESTE HOGEITA HAMAR URNIETAR ANTZEZLEEKIN BATERA

Marilo Lasa berriro oholtzan izango da "Gabon Txirrita"n

Marilo Lasa Garaño (Astigarraga, 1942) gaztetan, Urnietako Egi billa antzerki taldean ibilbide luzea egindakoa da; eta gaur egun ere ez zaio ilusiorik falta interpretazioaren munduan jarraitzeko. "Ga-

bon Txirrita" antzezlanean, Txirritaren amaren paperean ikusiko dugu. Obra honetako aktorerik beteranoena da, eta adibide bikaina gazteagoentzat. Saroben, entsegu baten atarian hartu gaitu.



Noiz eta nola hasi zenuen antzezele moduko ibilbidea?

Marilo Lasa: Gazte nintzela, Urnietara etorri ondoren, 22 urte inguru izango nituen lehenengo antzezlana egin genuenean. Orduan, gutxi edo gehiago, denok elizaren inguruan ibiltzen ginen. Ni ere koroan abastera sartu nintzen, eta han lagun batzuk egin nituen. Maria Aizmendi ere han ibiltzen zen gurekin elizako koro hartan, eta berak esan zigun antzerki bat prestatu behar genuela. Gu, ordurarte sekula antzerkia egin gabekoak ginen, baina, berak bultzatuta ausartu ginen.

Gogoan duzu aurreneko antzezelelan hura?

M.L.: Labaien tolosarrak idatzitako bat zela uste dut. Egi Billaren aurreneko lana izan zen. Neska baten paperean izan nintzen, erromerian nengoen nere lagunekin dantzatzera joana, eta mutil batzuk ezagutzen genituen. Orduan nuen adinerako egokia, kar, kar, kar.



Marilo Lasa.

Eta gustatu egin zitzaizun.

M.L.: Bai, eta Egi billa taldean jarraitu nuen 1968. urtean antzerkia utzi nuen arte. Obra batzuk egin genituen, oso giro polita zegoen gure artean, bestela lehenago utziko nuen.

Herriz-herri ibiltzen zineten antzerki lanak eskaintzen. Nola gogoratzen dituzu ibilera haiek?

M.L.: Gogoan dut zer giro polita zen hura! Oraindik ere harritu egiten naiz ibilera haiez penstaz jartzen naizenean. Dendena geuok egiten genuen, antzeztu, eszenatokia prestatu, askotan etxetik guk ekarritako arropa eta altzariek.

Maria Arizmendi, nola gogoratzen duzu?

M.L.: Oso txintxoak ginen, eta bere esanak ondo betetzen genituen, oso atsegina izaten zen gurekin.

Nolakoa zen Urnietako gazte- txoek orduan bizi zenuten giroa?

M.L.: Aipatu dudan elizako koroa, soilik neskez osatutakoa zen, eta denok koadrilakoak ginen, besteak beste, mendira irtenaldiak egiten genituen. Gogoratzen naiz, behin, asto batekin igo ginela Adarra mendira. Herriko lagunarteko giro sano horretan oso eroso sentitzen nintzen.

"Ordurarte sekula antzerkia egin gabekoak ginen, eta Maria Arizmendik bultzatuta ausartu ginen"

Noiz itzuli zinen antzerkira?

M.L.: 2008. urtean, Marizulo ikuskizunarekin bueltatu nintzen, eta oso gustura sentitu nintzen. Ondorengo bi ikuskizunetan ere parte hartu nuen, eta obra hau egitera ere bi aldiz pentsatu gabe apuntatu naiz. Gaztetan baino lotsa gehiago sentitzen dut orain. Gaztetasunak ematen duen ausardia edo ez dakit zer izango zen.

Txirritaren ama zara "Gabon Txirrita" obran. Nolakoa da?

M.L.: Oso eroso sentitzen naiz paperean. Txirritaren amak, alde batetik semea defenditu nahi du, edozein amaren moduan, bestetik, berriz, ezin du, semea den modukoa delako. Batzuetan haserretzen da, beste batzuetan kamelatuko du, engainatu, hobeto esanda. Ama gaixoa ikaratu xamar dago, pentsa, baserritik atera eta epaiketa batera etorrita.

Taldeko giroa nolakoa da?

M.L.: Horrelako lanak egitearen

gauzarik onena hori da, denok borondatez ari garela, borondatea dagoen bitartean dena oso ondo joaten da. Diruarengatik ibiliko baginateke, behar bada, desberdin izango zen. Balore handia ematen diet horrelako herrilanei, eta aurrerago ere beste aukeren bat sortzen bada, gustura parte hartuko dut.

Obra hau nolakoa dela esango zenuke?

M.L.: Duela 34 urte taularatu zutenean ez nuen ikusteko aukerarik izan, beraz, orain eza-gutu dut. Txirritaren bizitzaren zati bat dela esango nuke, bere alde bat erakusten duena. Gutxi gora-behera denok badakigu bertsolari parrandero bat izan zela, eta batez ere, hori da islatzen duena, baina sakonagoko begirada bat eginez gero, esango nuke, obra honetan azaltzen dela gizon jator eta atsegin bat ere. Bere modura, noski.

Amona zara, zure bilobak etorriko al dira antzezlana ikustera?

M.L.: Bai bilobak baditut, eta beraien interesa pizteko obra honetaz askotan hitz egiten diet. Pentsatzen dut haiek etorriko direla, eta beren ingurukoak ere bai. Hortik aurrera ez dakit gaztetxoengaino zenbaite-raino iritsiko den.



Rosa Elozegi, Koro Berasategi, Joxeba Lizeaga, Ane Loinaz, Luisa Serrano eta Ixabel Salaberria aktore lanetan arituko dira "Gabon Txirrita" antzezlanean.



Marilo Lasa gaztetan 1968. urte arte Egi billa taldean aritu zen. 2008an itzuli zen "Marizulo" antzezlanaarekin. "Gabon Txirrita" antzezlanean, Txirritaren amaren pape-ra beteko du. Argazkian, eskuinean eserita, Maria Arizmendi ondoan duela.

FIARE BANCA ETICA EKIMENA ANDOAINEN

Beste eredu ekonomiko baten alde

Fiare Banca Eticaren aldeko taldea osatu da Andoainen, banka tradizionalaren alternatiba izan nahi duena; ez du diru irabazi asmorik, eta bere helburua gizartearen ongizatera bideratutako proiektuak finantzatzea da bere helburua. Andoaingo babes taldeko Atxur Azurmendi, Luis Eskudero eta Haizea Iparragirrek bere filosofia eta ezaugarriak azaldu dizkiote Aiurriri.

tuak finantzatzea da bere helburua. Andoaingo babes taldeko Atxur Azurmendi, Luis Eskudero eta Haizea Iparragirrek bere filosofia eta ezaugarriak azaldu dizkiote Aiurriri.

Fiare zer den azalduko al zenukete?

Haizea Iparragirre: Egun ezagutzen dugun banka ereduaren alternatiba izan nahi du. Gizartea eraldatzeko tresna da, eta dirua gizarte eta elkartasun ekonomiako proiektuak finantzatzeko erabiltzen du. Ez du banku tradizionalekin lehiatu nahi, bere helburua ez da errentagarritasun ekonomikoa, gizarte onura baizik. Demokrazia, parte hartzea, garden-tasuna eta kreditu-eskubidea dira bere printzipioak.

Fiare Banca Eticak, finantza etikoetan dabiltzan bi proiektuen batuketan du jatorria: Italian 1999tik diharduen Banca Popolare Etica banketxe kooperatiboa, eta, estatu espainiarrean 2005ean abiatu zen Fiare egitasmoa.

Nortzuk osatzen duzue Fiare?

Luis Escudero: Hiru figura ahalbidetzen dira. Batetik, bezeroa; kontu korrantea eduki dezake beste edozein bankuetan bezala, baina jakin behar du oinarritzko zerbitzuak eskaintzen zaizkiola. Ez dauka bulegorik, eta internetez burutu behar ditu gestio guztiak. Interes txikiak izango ditu ekonomikoki, noski; gizarte onurarekin zerikusia duten interesak edukiko ditu gehiago.

Bigarrenik, bazkidea dago, banka etikoaren parterik garrantzitsuenak, kapital soziala osatzen duena; honek akzioak erosi behar ditu, gutxienez 300 euroko partizipazioa behar du kooperatibista bihurtzeko. Bazkideek jartzen duten diru hori gizartearen ongizaterako proiektuak finantzatzeko bideratzen da. Gainera, bazkideak eurek dira modu demokratikoan erabakitzen dutenak zein proiektu finantzatu.

Azkenik, tokian-tokian antolatzen diren boluntario eta kolaboratzaileen figura dago; Fiare proiektua bera gizarteratzen dute, kultur edo gizarte ekin-tzak lantzen dituzte...



Fiarek Andoainen dituen zenbait bazkide eta bultzatzaile: Atxur Azurmendi, Luis Eskudero, Mari Jose Arconada, Haizea Iparragirre, Fermin Moreno eta Patxi Hernani.

Zein motatako proiektuak finantzatzen ditu Fiarek?

H.I.: Irizpide ezberdinak hartzen dira kontuan: balio eraldatzaileak, ingurugiroa, garapenerako lankidetzak, bidezko merkataritza, nekazaritza ekologikoa, gizarte-bazterkeriaren aurkako borroka... Herrialde bakoitzean ebaluatzen dira propo-

satzen diren proiektuak. Bi azterketa gainditu behar ditut: bideragarritasun ekonomikoa lehenbizi, eta batzorde etiko sozial baten oniritzia ondoren.

Oraingoz, Gipuzkoan bi proiektu jarri dira abian. Bata, Zarautzen, kontsumo-eredu jasagarria eta bertako merkataritza bultzatuko duen denda

bat da. Eta bigarrena Hernanin, ekonekazaritzaren etxalde bat. Hirurogei mila euroko finantzazioa daukate biek ere.

Zenbat bezero eta bazkide dau de Andoainen gaur egun?

Atxur Azurmendi: Ezin dugu jakin zenbat bezero, baina bazkideak, hamaika lagun. Gure hel-

“Beste eredu ekonomiko bat, beste gizarte eredu bat” jardunaldiak larunbat honetan

Fiarek antolatuta, azoka Juanita Alkain plazan. Larunbatean goizeko 11:00etan hasita:

• **Ekonomia sozialaren azoka.** Juanita Alkain Plaza. Larunbata, 11:00etatik aurrera. Parte hartzaileak (Fiare taldeaz gain):

Caritas. Giza aurrerapenaren eta pertsonen garapen osoaren alde egiten du lan, baita gizarte-eraldaketaren alde ere, bidegabekeriak eta ezberdintasunak salatuz eta gizarte-eredu bidezkoago bat sustatuz.

Eguzki. Euskal erakunde edo elkar-te ekologista bat da, boluntarioek osatua. Eguzkik herri-erakunde izaera du. Hau da, ez dute ingurugiro alorreko profesionalak osatzen, herri-

tar “arruntak” baizik. Bakoitzak bere ezagutza eta gaitasuna taldearen zerbitzura jartzen ditu, nahi edota ahal duen neurrian.

GoiEner. Irabazteko asmorik gabeko kooperatiba da, gaur egungo eredu energetikoa aldatzeko desira duten milaka pertsona elkartu eta %100ean energia eredu berriztagarria lortzeko lan egiteko (Interesa dutenek argindarraren faktura eraman ahal izango dute informazio zehatza jasotzeko).

Kaleratzeak STOPeko Andoaingo Plataforma herritarra. Kaleratzeen aurrean babesgabe daudenen alde agertzen da eta aholkua, laguntza eta kaleratze-lege bidega-

bearen aurreko borroka egiten du.

Agrojateko eta Aspilla kontsumo taldeak. Produktzio eredu agro-ekologikoaren bidez, ekoizle-kontsumitzaile harreman zuzena mantentzen da. Andoainen eta inguruan ekoiztutako barazkiak.

Koop57. Aurrezki Etikoa bultzatzen duen finantzaketa zerbitzu kooperatiba da. Bere baliabidea ekonomia sozial eta solidarioa oinarri duten proiektuak maileguz laguntzera bideratzen ditu.

PROYDE- PROEGA (Promozioa eta Garapena). Izaera pribatuko GKEa da, lankidetzarako eta garapenerako sortua, laguntza sozialerako eta boluntariotza sustatzeko.

BI EGITASMO GIPUZKOAN

• **Kontsumo jasagarria eta bertako merkataritza (denda Zarautzen).** Tokiko laborantza iraunkorren biziberritzea eta elikadura osasungarria sustatzen dituen. Merkataritza-heziketa gunea.

• **Ekonekazaritzaren etxaldea (baratzak Hernanin).** Irabazi-asmorik gabeko entitatea, helburua nekazaritza ekologikoa sustatzea da.

burua kontzientzia soziala duten herritar guztienagan iristea da. Ez da ahaztu behar mantso doan prozesu bat dela hau; Fiare Banca Etica lortzen ari den dirua bere proiektuak finantzatzera bideratzen du, ez bere egiturak sendotzera banka tradizionalak egin ohi duen eran.

H.I.: Fiare bultzatzen dugunok geure bankua izatea nahi genuke noski, banku tradizionalak alde batera utzita. Baina errealitateak pausoz pauso ibiltzea agintzen digu. Banco de Españaren baimena lortu eta banku etikoa sortu da oraingoz; izan ere, ezinbestekoa baita banku tradizional baten egitura antolatzea proiektuak finantzatu ahal izateko. Denborak esango digu Fiare noraino irits daitekeen banku gisa...

Baten batek esan dezake zenbait banka tradizionalak lehendik ere badauzkatela beren gizarte ekin-tzak, fundazioak...

L.E.: Bai, baina herritarrek ez dakigu horien kapitalaren jatorria, espekulazioetatik datorren ala ez. Aldiz, Fiare Banca Eticak diruaren garbitasuna ziurtatzen digu. Bazkideen ekarpenetik datorkio bere kapital soziala, eta lasaitasuna ematen digu horrek.

FIARE ANDOAINEN:

Gabriel Aresti 15 (atzealdea). Hilabeteko bigarren ostegunean 18:00etatik 19:30etara biltzen dira. Telf: 943 303 770. fiare.andoain@gmail.com



ONTZA ELKARTEAREN 75. URTEURRENEKO OSPAKIZUNAK

Mendeurrenaren bila

Aurreko igande eguerdian Ontza elkarteko kideek 75. urteurreneko ospakizunak egin zituzten, hitzordura herriko gizarte eta politika mailako ordezkariak gonbidatuz.

Mezarekin hasi ziren ospakizunak, eta ondoren elkartearen kanpoaldean iritsi zen ekitaldi instituzionala. Bazkideek eguna luzatu zuten urteurreneko bazkariarekin.

Igande eguerdian Berrozpeko kaperako mezan auzotar eta bazkide ugari bildu ziren. Hura amaitzean, txistularien doinupean, denek ere Ama Kandida etorbidea zeharkatu eta metro gutxira dagoen Ogiola Berri etxeko atariko bidea egin zuten. Bertan baitago Ontza elkartearen egoitza, Andoaingo zaharrena, 1941ean sortua. Herri mailako gizarte eta politika alorreko ordezkariarekin batera, ehundik gora izan ziren elkartearen gonbidapenari erantzun ziotenak. Gora Kaletxiki txaranga bertan zen, baita elkarteko hainbat danbor eta barril jotzaile ere. Elkartearen atarian Ontzaren bandera eta Ikurriña jarri aurretik, Iñaki San Buenaventura lehendakariak hitzaldia eskaini zien bertaratu zirenei. Iraganeko sortzaileak gogoan izan zituen, baita urteotan guztietan hil diren bazkideak ere. Izan zirela-



Iñaki San Buenaventura elkarteko lehendakariak iragana, oraina eta etorkizuna hizpide izan zuen bere hizketaldian.

ko dira. **Mendikutetarrak, Araolazatarrak** edota **Erkiziatarrak** elkarteak ezagutu duten belaunaldi ezberdinen lekuko biziak dira. Erkiziatarren kasuan, gaur egun Beñat bazkide

gazteena da eta aitona Jose Manuel, berriz, adinekoena.

Elkartea gizarte eta kirol mailan eragile aipagarria da Andoaingo herrian, eta zer esanik ez Kaletxiki auzoa aipa-

tzen hasita. Ezinezko dira elkarteak eta auzoa bereiztea. Ia ia biak bat direla esan daiteke. Buenaventurak ospakizunean gogora ekarri zuen herriari eta auzoari egin dioten ekarpena:

“Ordurarte sekula antzerkia egin gabekoak ginen, eta Maria Arizmendik bulztatuta ausartu ginen”

“Urte hauetan, Ontzak ibilbide oparoa izan du. Elkarteak bere alea jarri du Kaletxikiko eta Andoaingo giroan eta bizitzan: Ehiza, arrantza, ziklismoa sustatu ditu, txapelketak, lasterketak, ikastaroak antolatuz. Beste ekintza asko sustatu ditu ere: Jaiak, mus txapelketak, gastronomia jardunaldiak, musika... Auzotik, herritik, udaltxetik, beste kirol arloetatik eta abarretatik eskatu zaigunean ere, beti prest egon gara gure laguntza emateko”.

Jarrai dezatela luzaroan auzoan eta herrian eragiten. Piskanaka piskanaka, mendeurrenaren bila.

Ekitaldiaren bidea: Aiurri.eus



Erkiziatarren hiru belaunaldi Ontza elkartearen aurrean. Ezker eskuin, Joseba, Jose Manuel eta Beñat.



Ander Setien, Nerea Makazaga, Maite Sagaseta, Irune Diez, Olatz eta Izaro San Buenaventura eta Nahia Agudo Ontza elkarteko bazkideen seme-alabek agurra dantzatu zuten.



Ontza elkartearen ereserkia Martinez de Lezea bazkideak zuzendu zuen. Andoaingo ereserkia, Etxeberriak.



Elkarteko danbor jotzaileak eta barrilak elkartearen kanpoaldean, urteurreneko ekitaldian.



ONTZA ELKARTEAREN 75. URTEURRENEKO OSPAKIZUNAK

Bazkideen poza

Antolaketa lanetan ibili zirenek lan handiak hartu zituzten urteurreneko ospakizunetan. Euriak ere ez zuen ekitaldi nagusia oztopatu, eta guztia aurreikusi bezala igaro zen.

Bazkarirako mahai ondoan eseri aurretik, Aiurrik elkarriketatutako sei bazkideak pozarren zeuden. Horrelako data seinalatuetan ez bada, ia bazkide guztiak elkartzea oso zaila izaten baita.



Beñat Erkizia bazkide gazteenak igo zuen ikurriña, Joxeba Arabaolaza edota bere aitona Jose Manuel Erkizia adinekoenak alboan zituela.



Gabino Agudo.



Iñaki San Buenaventura.



Imanol Etxeberria.



Beñat Erkizia.



Patxi Mendikute.



Eneko Urdangarin.

“Txikitandik ezagutu dut, eta horregatik gaurkoa egun berezia da niretzat”, aitona eta aitaren lekukoa hartu du elkartean **Patxi Mendikute** harakinak. Ontzako hirugarren belaunaldia da, elkartea sortu zutenen ondorengoa. Kaletxikira erabat lotuta dagoen herrikide horietakoa da. Auzoan bertan lan egin eta jaietan parte hartze zuzena du. Auzoa, elkartea eta jaiak oso gertutik bizi duen beste kidea **Imanol Etxeberria** da: “Ontza elkartea nire bigarren etxebizitza da. Betidanik ezagutu dut, eta 2000. urtean anaiei bidea jarraituz bazkide egin nintzen. Geroztik festak antolatzen, bazkariak antolatzen eta beste hainbatetan na-

bil. Gaurko urteurreneko festa gauza handia da, garai bateko eta gaur egungo bazkideak elkarrekin egoteko aukera izango dugulako”.

Ospakizunen atzeko lanetan zeregin handia izan duen horietakoa **Gabino Agudo** bazkidea da. Boteilari lanetan dabil elkartean, eta horri esker elkarrearen martxa gertutik jarraitzen du. Alaba izan zen urteurreneko ospakizunean agurra dantzatu zuen gaztetxoetakoa. Dantza saioa belaunaldien arteko transmisioaren adibide bilakatu zen. Hunkitzera iritsi zela aitortu zuen: “Jaiaren hasiera borobila izaten ari da. Hunkitzera iritsi naiz ere, alabak dantza ikusi dudanean

adibidez. Bestalde, aurpegi ezagun ugari ikusi ditut. Denak elkarrekin egotea ez da egunero gertatzen den zerbait, asteburuero hainbeste bazkide elkarrekin ez baitira egoten. Pentsa, denera ehun bazkide baldin bagara, bazkarirako 83k izena eman dute. Egun ederra izango da”. Familia eta lagunak elkartzeko tokia izateaz gain, bodegaren ardura berea denez, elkartea Agudoren zatitza garrantzia handikoa da.

Iñaki San Buenaventura Ontzako lehendakaria ospakizunetan ardura handien zutenen horien artean zegoen. Berak emandako hitzalditxo eta gero, lasaiago zegoela zioen: “Jaiaren antolaketarekin urdu-

ritzera iritsi gara: ekitaldia antolatzea, eguraldiari erreparatzea,... eguerdiko ekitaldiarekin urduri eta hunkituta egon gara. Baina oso pozik gaude. Guri egokitu zaigu urteurren berezi honetan ardura izatea, baina ekitaldian adierazi dadin bezala, hona iritsi bagara aurretik beste askok lan egin zutelako izan da”. Halaxe izan da Ontza elkartearen kasuan, 75 urtetan belaunaldiz belaunaldi elkarrearekiko atxikimendu hori berrituz joan baita. Gaur egun bazkide gazteena **Beñat Erkizia** da, eta zaharrena aldiz bere aitona Joxe Manuel. Beñatek Ontza elkarreko bandera eta Ikurriña ipini zituen igandeko ekitaldian:

“Polita izan da, eta gustura nago parte hartzeko aukera izan dudalako. Nire kasuan aitona eta aita alboan ditut, hirurak elkarreko bazkide gara eta berezia izan da oso”.

Elkartera eta auzora oso lotuta dagoen bazkidea **Eneko Urdangarin** da: “Auzoarentzat oso berezia da Ontza elkartea. Biak uztartuta daudela esango nuke, jaietan eta auzoko ekitaldi askotan eskutik doazelako. Auzoarentzat ona da horrelako elkartea gertu izatea. Gaurko eguna garrantzitsua izango da elkartearen historian, ia bazkide guztiak elkartu garelako”. Urdangarinek dagoeneko men-deurrena gogoan du. Konturatu orduko iritsiko da.



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Euskara Zuzendaritza

AGIRITEGI ARDURADUNA

Manuel Larramendi Kultur Bazkunak agiritegi arduraduna behar du urtean zehar ordukako lanaldi mugatua egiteko bere agiritegi nagusia antolatzen.

Eskaintzen da:

- Orduka eta lanaldi mugatu batez lan egiteko aukera.
- Agiritegi antolatzeko lanak osorik burutzea.
- Orduetegi aldetik hitzartu beharreko malgutasuna

Eskatzen da:

- Goi-mailako titulazioa
- Agiritegi antolakuntzan eskarmentu egiaztagarria
- Euskarari dagokion hizkuntza eskakizun egokia.

Lehenesten da:

- MLKB-ko bazkide izatea edo lotura izana Bazkunarekin.



Eskaerak aurkeztea:

Curriculum vitae aurkeztu behar da **bazkuna@larramendi.org** helbidera bidalitzeko **Dr. Huizi kalea, 15-1** helbidera (20140 Andoain)

“Uzten badiegu soilik!!”



POSTONTZIA:

Olga Hernandez

Ganemos, Andoain

Hamar urte igaro dira erraustegiaren eraikuntzari buruzko informazioez kezkatuak Andoainin egin ziren lehen hitzaldi haietara joaten hasi nintzenetik. Aitortu behar dut, mesfidantza apur batekin joan nintzela. Gazte garaian unibertsitateko tasen igoeren aurka, manifestazioetara joaten nintzen, Leitzarango autobaien eraikuntzaren aurka, eta azkenerako garai hartako manifestazio haietan deialdiaren arrazoiarekin zerikusirik ez zuten leloak oihukatzen hasten ziren. Esaten ziren hainbat gauzen aurka nengoen. Nire izenean, ez! Hortxe bukatu zen nire aldarrikapenerako garaia, erraustegiaren aurkako lehen hitzaldi haietara joaten hasi nintzen arte.

Nire ikasleei errepikatu ohi diet protesta egiteak berarekin ekarri behar dituela argudioak eta irtenbideak. Horregatik, lehen bilera hura gogoko izan nuen: Ez ziren lau katu, protesta egiteko prest zeuden lau ero. Bilera hartan ingeniariak edota abokatuak zeuden, gauzak beste modu batera egin zitezkeela adierazten zutenak. Niri bereziki medikuek emandako argudioek konbentzitu ninduten.

Geroztik, lagunekin, ezagunekin edota bizilagunekin hizketan Gipuzkoarako erraustegiaren eraikuntzaren aurka nagoela adierazten dudanean denetarikoa komentarioak entzuten ditut: “Ez zara ba atez atekoaren alde egongo, ezta? Nonbaiten jarri beharko dute, ba? Zerbait egin beharko dute zeren eta zaborteagiak ere arazo bilakatu dira! Nolanahi ere, egin egingo dute”. Argudio horiek entzunda, auzia erabat politizatuta dagoela ikusten da: EAJ-PNV erraustegiaren alde; Bildu atezatekoaren alde. Errauskailuak jaurtitzen dituen partikula kutsagarriak alderdi politiko bakoitzeko botu-emalea bereizten jakingo balute bezala!

Azaroko Udal batzaraldian adierazi genuen bezala, zeinean Ganemos alderdiak bide eman zion erraustegiaren aurkako mozio bati (erantzun

“Gipuzkoan gehiengoa atez atekoaren aurka agertu izanak ez du gehiengo osoa erraustegiaren alde dagoenik esan nahi”

modura PSE-EEk eta EAJ-PNVk mozio “alternatiboa” aurkeztu zuten, gehiengo osoz onartu zena), Gipuzkoan gehiengoa atez atekoaren aurka agertu izanak ez du gehiengo osoa erraustegiaren alde dagoenik esan nahi.

Erraustegiaren aurkako mugimenduetan gabiltzanok jakin badakigu gure gizartearen beste elementu kutsakor gehiago badagoela. Elkarte asko osasun eta ingurugiroaren alde alor ezberdinetan lanean aritzen dira, baina horrek ez du argudio izan behar erraustegiaren aurka ez agertzeko. Burua duenak ez du erraustegirik nahi bere herrian, eta bihotza duenak ez du beste inoren herrian nahi!

Zabortegei dagokionez, bitxia da erraustegia egingo balitz hondakin toxikoak gordetzeko zabortegei bat erai ki beharko litzatekeela ez dela inon agertzen. Zentzurik ba al du ate batetik hondakinak sartzea eta bestetik hondakin toxiko bezala irtenaraztea? Arrazoiak egongo dira, baina zentzurik ez du!

Aurreko maiatzaren 7an, Hernaniko Zero Zabortaldeak antolatuta, Zero Waste Europe mugimenduko Rossano Ercoliniren hitzaldian izan ginen. Goldman 2013 ingurugiro saria eskuratu zuen, ingurugiroko Nobel sariaren pareko dena. Adierazpen interesgarri ugari egin zituen, eta aitortza bat egin zuen: Bere esperientziaren arabera, Italiako erraustegien eraikuntzaren aurkako mugimenduetan adierazteazakeen herritar ekimen sendoa egon den herrietan erraustegia ezartzea saihestu dela. Hori dela eta, Gipuzkoarako erraustegirik nahi ez duenari datorren maiatzaren 29an Donostiako Onkologikoa eta Diputazioaren artean antolatatu duten giza-katean parte hartzeko deia egiten diogu.

Osasun mailako arrazoiak, arrazoi ekonomikoak, enplegu mailako arrazoiak daude erraustegiaren aurka agertzeko. EAJko edota PSEko botu-emale izan eta erraustegiarekiko kezka agertzen didazuenei adierazi nahi dizuet zeuen iritzia zuen ordezkari politikoei helarazi behar dizkiezuela.

Nire izenean, ez!

Erraustegiaren aurka, Onkologikoa-Diputazioa artean

Larunbateko giza-katean parte hartzeko deia



Bildu ziren herrikideak erraustegia kokatu nahi duten ingurua seinalatuz ageri dira, Andoaindik hiru kilometrotara geratzen dena.

Zubietan egitekoa den erraustegia hiru kilometroko eremuan dagoenez, Andoainin kezkaz bizi duten herritar talde bat dago. Sentsibilizazio lana egiten hasi eta Ipar Haizea plataforma sortu zuten. Asteak dira larunbat honetako giza-kate erraldoia iragarri zutenetik, zeinak erraustegiaren aurka Onkologikoa eta Foru Aldundiaren egoitza nagusia lotu nahi dituen. Andoaindarren artean, aurreko astean Nafarroa plazan “Osasunaren aldeko eta errausketaren aurkako giza katea” aurkeztu zuten.

Donostiako giza-katea 12:00etan hasiko da eta Andoaingo parte hartzaileek Amaran egon beharko dute 11:30ean

ANDOAINDARREI DEIA

Astearen hasieran 180 herritar ziren giza-katean izena emanda zeudenak. Parte hartzaile guztiei honako oharra zabaldu nahi diete: “Andoaindik goazenok bosgarren gunean izango dugu kokalekua. Amaran kokatzen da, Madrid etorbidea

amaitzen den tokian, Easo Politeknikoaren aurrean eta Astoria zinema dagoen punturaino”. Hitzordua 11:30tan ipini dute eta giza-katea korrikalari talde bat igarotzen denean amaituko da. “Korrikalariak igarotzean giza-kateko partaideei Gipuzkoa plazako ekitaldira joateko deia egin nahi diegu”.

Giza-katean izena emateko aukera larunbat eguerdira arte egongo da Ernaitza, Keinu eta Li arropadendan. Internet bidez, erraustuez.org webgunean.

Datorren ekainaren 12an Santa Krutz elkartearen eskutik

Leitzako jaitsiera

Ekainaren 12rako Santakrutz erretiratuen elkarteak urteroko zeharkaldia antolatuko du. Aurtengoak aldaketa nabarmena izango du, ordea, Olagáin auzotik bertatik aterako baita. Oinez Inturiaraino joango dira, atzera berriro auzora itzultzeko. Antolatzaileek esan dutenez, aurreko urteetan

bezala oinezkoek ibilgailu baten laguntza izango dute. Irteera goizeko 09:00etan izango da.

“Bixera”ra doan ibilbide laburra egin behar dutenak 09:30ean irtengo dira. Parte hartzaile guztiei salda, txoria eta haragi egosia eskainiko zaie.

HERRI BAZKARIA

14:30ean auzoko tabernan bazkaria eskainiko dute, gehienez ere 40 mahaikiderentzat. Horretarako izena eman beharra dago ekainaren 9a baino lehen. Bazkariaren prezioa 20 euroko da eta menua hauxe da: bakailoa tomatearekin, saiheskia eta postrea.

Txakurren jabeekin bilera

Andoaingo Udalak ekaineko txakur jabeekin bilera deitu du. Bilerak helburu zehatza du: “Guztion artean gai honetan gauzak nola hobetu aztertzea izango da: Udalak zein zerbitzu jarri

behar dituen, zein bestelako ekimen egin daitekeen eta bestetik txakurren jabeek zein konpromiso har ditzaketan”.

19:00. Urigain.
Ekainak 7, asteartea.

“GU ERE BERTSOTAN” BASTERO KULTURGUNEAN



Andoaingo hiru ikastetxeetako ikasleek bertso saioa eskaini zuten Bastero kulturgunean. Hitzordura, ohi bezala, ikasleen senide ugari hurbildu ziren.

Argazki gehiago ikusgai daude aiurri.eus webgunean.



KIROL ALBISTEAK

Jar dezagun monumentua Jokin Lizeagaren omenez

Zegama-Aizkorri

1 Kilian Jornet	3:50:03
2 M.Lauenstein	3:59:22
3 L.A.Hernando	4:00:05
9 Jokin Lizeaga	4:13:42
51 Jon Ugalde	4:53:31
130 Mikel Legarreta	5:26:10
170 Juan Luis Gómez	5:40:10
307 Joxi Telletxea	6:47:48
376 Miguel A. Garrosa	7:35:21

Zegama Aitzkorri Junior Trail

1 Daniel Osanz	46:30
29 Ander Zubizarreta	56:04



Jokin Lizeaga indar betean mendian gora, igandeko Zegama-Aizkorri lasterketan.

Maiatzean lesionatuta irten zen Urnietako mendi lasterketan, eta halere hirugarren sailkatu zen. Zegama-Aizkorri mendi maratokia probara erabat osatu gabe iritsi zen eta ha-

lere lehen euskalduna izatea lortu zuen. Hotzak eta euriak lasterketa gehiago zaildu zuten, horregatik meritu handi-

koa da urnietarraren postu bikaina. Eta ezin ahaztu proban lehiakide izan zituen eskualdeko kidak ere.

Finala pauso bakarrera

Herriartekoa, pala

Andoingo mutilek bi partidak irabazi zituzten Olaberriaren aurka, larunbateko joaneko neurketan. Beraz, nahikoa dute partidatoko bat irabaztea itzulerakoan finalera sailkatzeko.

Larruzko palan, Ibon Altunak eta Manex Letek osatutako bikoteak 35-25 garaitu zuen Arantzegi-Olaran bikotea. Pala motzean, berriz, Ibai Iradik eta Aritz Rekaldek 40-32 irabazi zuten Arrieta eta Garridorekin aurka. Bigarren-go partidua izan zen lehiatue-na; nahiko parekatua gertatu zen azken aldera arte, Iradi aurrelariak berezkoa duen teknika eta indarra erakutsi, eta partidua bertakoen alde hautsi zuen arte.

Andoingo taldeak lehendik ere badaki zer den Gipuzkoako herriarteko txapelketako finalera iristea, baita irabaztea ere, eta faboritotzat jotzen dira kanporaketan. Nolanahi ere, Arrateko frontoiaren aldean, neurri txikiagoak ditu Olaberriakoak, eta hartara egokitze-ko lanak izango dituzte. Zailtasun hori gaindituz gero, gauzak erraztuko zaizkie andoaindarrei.



Lete, Altuna, Iradi eta Rekalde Andoain finaletik pauso batera, Gipuzkoakoan.

Herriartekoa, eskuz

Final zortziretan Andoni Alvareren mutilek ezin izan zuten Astigarraga garaitu. Hiru parti-

datan galdu egin zuten (13-22, 7-22, 15-22). Asteburu honetan Astigarragan aurkariari aurrea hartzen saiatuko dira.

ITUZAETA MEMORIALA

PARTIDA GEHIAGO SORABILLAN, ASTEBURUAN



Kirol Astearen hasiera

Kirolean ere berdintasunean lelopean, jarduera ugari antolatu dituzte Andoainen:

Maiatzak 30, astelehena

17:00 Goikoplazan pilotari profesionalekin solasean.

Maiatzak 30-Ekainak 3

18:00-20:00 Goiburun golf-efean trebatzeko aukera, doan.

Maiatzak 31, asteartea

19:00 Basteron Kirol merezimenduaren saria Euskaldunako Alejandro Gonzalez eta Isabel Santa Cruz.

Ekitaldi gehiagoren berri, datorren Aiurrin edota www.kirola.andoain.eus webgunean.

Pala motza, partidak

Maiatzak 27, ostirala

20:30. Arrate. Binaka. Garate-Gordon/

Arozena-Mariñelarena.

Altuna-Andueza/

De Elizondo-Belestin.

Garaipenarekin, agur



URNIETA 28-25 MUNTARPE

Senior mutilak.

Urnietak ez zuen hutsik egin eta bere zaleen aurrean denboraldiari amaiera garaipenarekin amaiara eman zioten. Atsedenaldirako 5 goleko errenta eskuratu zuten (17-12). Bigarren zatian lezotarrek markagailuan hurbildu baziren ere, Jokin Jimenez eta Patxi Morandeiraren mutilak ez ziren urduri jarri eta Iosu Irigoyen atezainaren geldiketez gain, talde osoaren lanari esker garaipena lortu zuten.

Goleatzaileak: B.Senperena (10), J. Arruarte (4), X.Salaberria (4), J. Sanchez (3), J.Pagola (3), E.Urruzola (2) eta G.Vicente (2).

Azken garaipen honekin UKEko lehen taldeak denboraldi txukunari amaiera eman dio. Aipatu beharra dago taldea Lehenengo Territorialean jokatzeko azken unean deitu zutela. Hamabi taldeko ligan seigarren postua eskuratuta, hurrengo denboraldian ere maila berean jokatu dute.

Txirrindulariak Urnietan



Idiazabal kalean egin zuten proba.

MAIATZAK 21, LARUNBATA ALEBINAK:

1. Dani Fursenko (Andoingo)
2. Igoi Pikabea (Andoingo)
5. Iker Balbas (Andoingo)
16. Izaro Zuriarrain (Andoingo)
19. Ibai Vela (Andoingo)

INFANTILAK:

1. Aratz Guridi (Ampo)
7. Peru Alkain (Andoingo)
11. Unai Galarza (Andoingo)
13. Laiene Pikabea (Andoingo)
16. Iker Atxaga (Andoingo)

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri
BETERRI-RURINTZAKO ASTEKARIA



TOKIKOM

Ekoizlea:



Laguntzaileak:



Aldizkari honek
bi udalerrri hauen
dirulaguntza jasotzen du:



Argitaratzailea:



Aiurri eskuragarri:

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro.
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea.
20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
@: andoain@aiurri.eus
Webgunea: www.aiurri.eus

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda.
andoain@aiurri.eus
Erredaktoreak:
Xabier Lasa, Joxeba Lizeaga, Izarne Olano eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda.
diseinua@aiurri.eus
Publizitatea:
Fernanda Irazu.
publizitatea@aiurri.eus

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.eus
www.aiurri.eus
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa

arduraduna:
Garbiñe Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.eus
Tel.: 943 300 732

Banatzailleak:

Mikel Arregi (Andoain), Garazi Usandizaga (Urnietan).
Inprimategia:
Zeroa Multimedia.
Huarte-Iruñea.

Agenda

MAIATZAREN 27TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.com

Zinema

Andoain, Bastero

- “La noche que mi madre mato a mi padre”.
Larunbata, 28. 19:30, 22:00.
Igandea, 29. 19:30.
Astlehena, 30. 19:30, 22:00.
■ Haurrentzat: “Oker”.
Larunbata, igandea. 17:00.
■ “Andoain laburrean”
19:00 Ekitaldi aretoa.
Ekainak 7, asteartea.

Erakusketak

Urnietan, Lekaio

- “Egape dantzan”, dantza taldearen hamar urteak.
Azken eguna: Maiatzak 29.

Matrikula

Andoain, Bastero

- Galardi Haurreskola, 0-2 urtekoen matrikulazioa.
Azken eguna: Ekainak 3.

Euskara

Andoain

- **Mintzodromoa** Bastero plazan Udalak, AEKk eta Ondarretako gurasoek antolatuta.
Ekainak 4, larunbata.

Azoka

Andoain, Juanita Alkain

- “Beste eredu ekonomiko bat, beste gizarte eredu bat” jardunaldiak. Informazioa 7. orrialdean.
Maiatzak 28, larunbata.

Antzerkia

Andoain, Bastero

- Producciones del barrio taldearen eskutik, “El rey”: Juan Carlos I, PPren guber-nua, GAL, Franco... Antzerkia eta politika batzen diren antzezlanak. Aktoreak: Alberto San Juan, Luis Bermejo eta Javier Gutierrez.
21:30 15 euro.
Ekainak 3, ostirala.

Jaiak

Urnietan

- **Gazte jaiak**, Egape dantza taldearen txupinazoarekin: Musika, dantza, bazkaria, jolasak,... Egitaraua eta informazioa 4-5. orrialdeetan.
Maiatzak 27-29.

Lehiaketa

Urnietan

- **Argazki-rallya**.
100 eta 200 euroko sariak.
Izen ematea Lekaion, goizeko 09:30ean hasita.
Maiatzak 28, larunbata.

Musika

Urnietan

- **Gazte jaiak:**
DJ Bull
23:30 Guria ondoan.
Maiatzak 27, ostirala.
Txorroskilo, Eskaleak, Kezka, Kalera
23:00 Guria ondoan.
Maiatzak 28, larunbata.
Erromeria
19:00 San Juan plaza.
Maiatzak 29, igandea.
■ **Lourdes Iriondo udal musika eskolako ikasleen kontzertuak.**
Perkusioa, pianoa:
18:30. Sarobe.
Maiatzak 30, astlehena.
Musika tailerra:
17:30. Sarobe.
Bibolina:
17:30. Sarobe.
Maiatzak 31, asteartea.
Pianoa, eskusoinua, tronpeta:
18:30. Sarobe.
Ekainak 2, osteguna.
Trikitixa, panderoa:
17:30. Sarobe.
Ekainak 3, ostirala.

Andoain

- **Lauroba eta Burundanga** zuzenean.
22:30 Gaztetxea.
Maiatzak 28, larunbata.
■ **Cafe Quijano** zuzenean.
20:00 30 euro. Bastero.
Ekainak 10, ostirala.

Dantza

Urnietan

- **Urnietan Dantzan**, egun osoko ospakizuna Egaperen eskutik. Besteak beste, Falcons kataluniako saio ikusgarria.
Maiatzak 28, larunbata.
■ **Gazte dantza-soka** herrikoia.
12:30 San Juan plaza.
Maiatzak 29, igandea.

Martxa

Donostia

- **Erraustegiaren aurkako mugimenduak** antolatuta, Onkologikotik Diputaziora giza-katea.
11:30.
Maiatzak 29, igandea.

Ospakizuna

Urnietan

- **Muxugoxoren aurkezpen ekitaldia.**
18:00 Aurkezpen ekitaldia.
19:00 Bertso saio musikatua: Xamoa, Alaia Martin, Maialen Aki-zu eta Egoitz Zelaia.
Gai jartzailea: H.Casabal.
Sarrera: 3 euro (Xauxar, Ikasmin).
Maiatzak 27, larunbata.

Omenaldia

Andoain, Bastero

- **Kirol merezimenduaren saria** Euskaldunako Alejandro Gonzalez eta Isabel Santa Cruz, Kirol Astearen baitan.
19:00 Ekitaldi aretoa.
Maiatzak 31, asteartea.

Farmaziak

Eskualdea

- **Andoain:** Pajares.
Urnietan: Aizpuru.
■ **Gauzez:** Urrutia.
Etxeberri, 1.
Florida auzoa.
Hernani.
Maiatzak 28, 29.

ZORION AGURRAK

ZORIONAK



Oier Oiartzun Arregi maiatzaren 23an jaio zen. Zorionak aitabko eta amababak. Muxu handiak.

ANDOAIN


ZORIONAK



Itxasok maiatzaren 24an 19 urte bete zituen. Zorionak txapeladuna! Muxuak. Etxekoak.

ANDOAIN

ZORIONAK



Oinatz Zatarain Korrotxanok 5 urte maiatzaren 23an. Etxekoak, eta Unax eta Aner lehengusak. Muxuak.

ANDOAIN



ZORION AGURRAK

Erraza da, eta dohainik.

Emaillez: diseinua@aiurri.eus

Webgunea: aiurri.eus

Katramila eguna

Maiatzak 28, larunbata

11:00 Zumea plazan haur antzerkia. Patata Tropikala: “Pirata Garrapata”. Ondoren, kalejira.

12:00 Bastero plazan sorpresa.

13:30 Bazkaria Ondarreta ikastetxe jolastoki estalian.
16:30 Antzerki eskolako haur emanaldia Basteron.

Oskarbi taldea bikain



Nagusien taldea Ibarran irabazle izan zen.

Andoaingo **Oskarbi** Gimnasia Errit-miko taldeko neskek emaitza bikainak lortu dituzte maiatzaren 14an Ibarran jokaturako Gipuzkoako txapelketako finalean eta joan zen igandean, Ordizian jokaturako Uda-berriko torneoan. Ibarran lehen postua lortu zuten taldeka, senior

kategorian. Banaka, uztai eta mazo-etan **Maialen Arano** irabazle izan zen eta **Marta Virgala** hirugarren. Ordizian, Oskarbi Oskarbi neskak hiru aldiz igo ziren podiumera, kadete zein alebin kategoriatan lehen postuak lortu baitzituzten, eta hirugarren postua infantiletan.



Kadete taldea zutik (irabazle Ordizian) eta infantila behean (3. Ordizian).

EKITALDI HAUEK ETA GEHIAGO WWW.AIURRI.COM/AGENDA.PHP ATALEAN